

Muga-zergekek depresioa areagotzen dute



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Washington (AEB), 1930eko ekainaren 17an. AEBetako Kongresuak Muga-Zergen Legea onartu zuen. Smoot-Hawley Legea ere esaten zaio Reed Smoot senatariak eta Willis Hawley diputatuak bultzatu zutelako.

Legeak 900 produktu ingururako inportazio zerga-mugak %40 eta %60 artean igo zituen, estatubatuar enpresak eta nekazariak babestu asmoz.

1920ko hamarkadaren europar nekazariak Lehen Mundu Gerrak eragindako hondamendia atzean uzten hasi ziren, ekoizpena handitzen hasi zen, nazioarteko konkurrentzia areagotu zen eta elikagaien prezioek behera egin zuten. Gainera AEBetako nekazari asko zorpetuta zeuden, urte horietan ekoizpena optimizatzeko inbertsioak egin baitzituzten. Gogoan izan behar da garai hartan herrialdeko eskulanaren %20 inguru lehen sektorean aritzen zela.

Horregatik, 1928an, Hervert Hoover presidente hautatu zutenean, nekazariak presioa egin zuten neurri protekzionistak har zitzen.

Smoot-Hawley Legea 1929ko maiatzean aurkeztu zuten kongresuan eta Hooverek 1930eko ekainean sinatu zuen. 1929ko kraka gertatu zen tartean, urte hartako iraila-urrian. Beraz, muga-zergak Depresio Handiaren hasierarekin batera iritsi ziren. Eta krisia arindu ordez, areagotu egin zuten.

Neurriak inportazio askori eragin zuten: arropa, petrolio-upelak, azukrea,



AGRICULTURA

1920ko hamarkadaren amaieran AEBetako nekazariak babes neurriak eskatu zituzten gobernuari.

arrautzak... Besteak beste, Kanadak eta Europak antzeko neurriekin erantzun zuten eta, hurrengo bi urtetan, AEBetako inportazio nahiz esportazioek %40 inguru egin zuten behera. Legea indarrean jarri baino lehen AEBetako produktuen atzerriko salmenta 7.000 milioi dolarrekoa zen, eta 1932an ia herenera jaitsi zen, 2.500 milioitaraino. Eta ondorioak ez ziren soilik AEBetan nabaritu.

Zenbaitentzat muga-zergekek mundu osoan izan zuten eraginak Bigarren Mundu Gerraren piztaileetako bat izango zi-

ren hainbat urte geroago. Thomas Lamont presidentetzako aholkularia izan zen Hooveren agintaldian, baita J.P. Morgan inbertsio-bankuko akzioduna ere. Bere esanetan, "lege hark nazionalismoa bultzatu zuen mundu osoan". Eta zera gaineratu zuen: "Ia belauniko jarri nintzen Herbert Hooveren aurrean, legeari betoa jarri ziezaion erregutzeko". Ez dakigu ahalegin hura benetakoa izan zen ala ez. Dakiguna da muga-zergen ondorio negatiboak jakin ondoren erakutsi zuela kontrako jarrera irmo hura. ●



A. SLONEK / NOVETUS

Erromatar gorpuak Vienaren zimendu

Vienako Simmering auzoan kirol-zelai bat berritzeko lanetan ari zirela, 150 gorpu dituen hobi komuna topatu zuten 2024ko urrian. Erromatar legionarioak zirela ondorioztatu dute, eta K.o. 100 urte inguruan hil zirela. Edo, hobe esanda, hil zituztela. Gorpuak edozein modutara ehortzi zituzten eta indarkeria arrastoak dituzte. Horrek esan nahi

du eraso edo gatazka bat egon zela, eta, Novetus arkeologia enpresako adituen arabera, gertakaria funtsezkoa izan zen hiriaren jatorrian. Erromatarren porrotak Vindobona garnizioa gotortzea eta sendotzea eragin omen zuen eta hori, Martin Mosser arkeologoaren hitzetan, "giltzarria izan zen Vienaren hastapeneta konfigurazio urbanoan". ●